



**Ortu komunitarioak
osasuntsu elikatzeko**



GORKA ARTOLA ALBERDI
BERGARAKO ALKATEA

AURKIBIDEA

- 2- UDALETXETIK
- 3- BERGARA IZAN, BIZI, EKIN
PLANEKO 2022RAKO EGITASMOAK
- 4- 5- JAIAK
- 6- AGORROSINGO FUTBOL ZELAIKO
LANAK
- 7- ARRIZURIAGAREN ETORKIZUNA
ERAIKITZEN
- 8- ZUBIETA KALEKO LANAK
- 9- ZTB JARDUNALDIAK
- 10- MUGIKORTASUNAREN
AZTERKETA
- 11- BERDINTASUN PLANA
- 12-13 ORTU KOMUNITARIOAK
- 14- AGARREKO GARAIA
- 15- LANKIDETZA GUNEA
- 16- 17- 18 LABURRAK
- 19- KOLABORAZIOA. LABORATORIUM
MUSEOA
- 20- KOLABORAZIOA. UDAL ARTXIBOA
- 21- KOLABORAZIOA. DEBAGOIENA
2030
- 22-23 ALDERDIEN IRITZIAK.
UDALBATZAKO KIDEEKIN
HARREMANETARAKO BIDEAK
- 24- AINHOA NARBAIZA
EREINDAJANEKO KIDEARI
ELKARRIZKETA

2022ko uztaila

© Argitaratzailea: Bergarako Udala
Egilea: Mundu Mira Kooperatiba Elkarte

JASOKO DUGU UZTA

Aurreko aldizkarian loratzeko genituen proiektuen inguruan aritu nintzen, esaten nuen proiektu garrantzitsu askoren haziak landatu genituela, beste batzuk hazten ari zirela, ongarria jasotzen, eta loratuko zirela. Bada, orain, uda sasoi hasieran, orduan aipatzen nituenetatik asko dagoeneko loratu dira, eta uzta ere jasoko dugu.

Herria hobetzeko obra garrantzitsuak ditugu martxan, esaterako, Agorrosingo futbol zelaia berritzea, eta Zubieta eta Masterreka kaleak birgaitzea. Eraikuntza edo obretatik harago ere proiektu garrantzitsuak ditugu esku artean, Arrizuriaga jauregia egonkortzearekin batera bertan gauatzeko kultur proiektua edota ortu komunitarioak. Azken hauetako uzta espero dugu bereziki gose!

Bergararentzat, eta hortaz bergararrontzat inportanteak diren proiektuak dira aipatutakoak, eta pozten nau horiek gauzatzen joateak, eta gure herrian hobe bizitzeko aleak jarri ahal izateak, baina hori baino askoz gehiago poztu nau azken aldian jendea pozik, irribarretsu ikusteak. Azken hilabete luze ilunen ondoren ortzadarra eta eguzkia ikusteko beharra genuen. Horien pareko izan dira niretzat jaietan, txaranga egunean edota San Martzialen ikusi ditudan jendearen aurpegi alaiak, irribarreak eta algarak. Datozen hilabeteetan horiek mantenduko ditugulakoan... oporraldi on denoi!

PREPARADAS PARA COSECHAR

En la anterior revista me referí a los proyectos que teníamos a punto de florecer, decía que habíamos plantado las semillas de muchos proyectos importantes, que otros estaban creciendo, recibiendo el abono correspondiente, y que iban a florecer. Pues bien, ahora, a principios de la época estival, muchos de ellos han florecido ya, y esperamos recoger la cosecha.

Tenemos en marcha importantes obras para mejorar el pueblo, como la reforma del campo de fútbol de Agorrosin, y la rehabilitación de las calles Zubieta y Masterreka. También tenemos entre manos proyectos importantes más allá de las construcciones u obras, con la estabilización del palacio de Arrizuriaga y el proyecto cultural que se materialice en él o las huertas comunitarias. ¡La cosecha de esta últimas nos hace especialmente la boca agua!

Los proyectos mencionados son importantes para Bergara y por tanto para la ciudadanía, y me alegra que se vayan materializando y podamos poner las semillas o cimientos para vivir mejor en nuestro pueblo, pero más que eso me ha alegrado ver últimamente a la gente contenta, sonriente. Necesitábamos ver el arco iris y el sol después de largos meses de oscuridad. Y eso me han recordado las caras alegres, las sonrisas y las carcajadas de la gente que he visto en fiestas, en el día de la txaranga o en San Marcial. Espero que podamos mantenerlas los próximos meses... ¡felices vacaciones!



izan, bizi, ekin

Bergararren ongizatean urratsak ematen jarraitzeko bidea argi

2022. urtean Bergarako Udalak landuko dituen proiektuak *Bergara izan, bizi, ekin* legealdi planean eta *Bergara 2030* egin herrixa plan estrategikoan jasota daude. Bi planek elkar elikatzen dute, antzeko baloreak sustatzen dituzte. Egiten denak garrantzia duelako, ezbairik gabe, baina nola egiten den ere inportantea delako. Udal Gobernuak *Bergara izan, bizi, ekin* aurkeztu zuenean Gorka Artola alkateak esan zuen, “elkarrekin, elkarlanean eraiki nahi dugu Bergara berria, herri bizia izango dena. Jasangarritasunetik, feminisмотik eta justizia sozialetik, elkarbizitza erraztuko duen Bergara atsegina”.

Pertsona guztiak aintzat hartuko dituen. Pertsona helduek bizitza duina izan dezaten lan egiten duen herri solidarioa. Haur-gazteak subjektu izango dituen herria. Bergararrak beren herrian bizitzen gera daitezen etxebizitza, lana... bermatuko dizkiena. Egoera zaurgarrian dauden pertsonak aintzat hartuko dituen, ez baitugu nahi inor atzean gera dadin. Berdintasunean oinarritutako herrian sinesten duena. Horrelako herria nahi du Bergarako Udal Gobernuak.

2022. urtean bi proiektu handi gauzatuko dira. Zubieta eta Masterreka kaleak berrurbanizatzea eta Agorrosin berria; eta garrantzitsuak izango dira, halaber, Arrizuriagako proiektua, ortu komunitarioena...



Landuko diren gainontzeko proiektu nagusiak:

IZAN

- Euskara lan-munduan sustatzeko egitasmoa garatzea.
- Ikerketa giza-eskubideen urraketen inguruan (1936-gaur egun).

BIZI

- Arreta zentro arina.
- Agorrosingo futbol-zelai berria: 1. fasea.
- Hezkuntza mahaia erabakitako proiektuak.
- 2021ean egindako turismo plana indarrean jarri.
- Zubieta-Masterreka ardatzaren berrurbanizazioa.
- Mugikortasun azterketatik eratorritako ekimenak.

EKIN

- Arrizuriagaren erabilera diseinatzeko parte-hartze prozesua.
- Berdintasuna: Teknikari postua atera eta plana martxan jarri.
- Klima eta Energia plana.
- Ortu komunitarioak.
- Azoka biziberritzeko proiektua.
- Osintxu bizi.
- Buruñaoko bidegurutzea.

El Ayuntamiento de Bergara va a seguir en 2022 las directrices del plan de legislatura *Bergara izan, bizi, ekin* y del plan estratégico *Bergara 2030* egin herrixa, con el objetivo de mejorar el bienestar de la ciudadanía. La reurbanización del eje Zubieta-Masterreka y la obra de Agorrosin son los dos proyectos principales, pero se desarrollarán otros mucho de diferente índole.



Gogotsu geunden eta giro ezin hobean egin ditugu herriko jaiak

Ekainaren 3tik 7ra bitartean egin dira 2022. urtean herriko jai nagusiak, Pentekosteak. Gogotsu zegoen jendea, Gorka Artola alkateak jaiak antolatzen lan egin duten eragileekin egitaraua aurkezteko egindako agerraldian esan zuen moduan, eta hori ikusi da.

“Esan genuen jendea gogotsu zegoela, guztiok ere behar genuela kaleko bizitza berreskuratu, elkarrekin egon, eta horretarako baliatu ditugu bergararrok egun hauek. Ikusi dugu jendea pozik, disfrutatzen, garai batean bezala. Eta hori oso polita izan da. Jende askok esan digu aspaldiko jairik onenak izan direla, beharra zegoenaren seinale”.

Balorazio oso ona egin du, hortaz, Bergarako Udal Gobernuak jaien inguruan. Aurreikusitako ekintza guztiak egin dira, eta oso giro ona egon da herrian, azken aldian egindako gainontzeko jaietan bezalatsu. Maiatzean egindako lehen txaranga egunean, uztailaren hasieran egindako San Martzialeko erromerian, edota auzoetako jaietan, esate baterako.

Pandemia aurreko jaietako ekimenak berreskuratu dira eta gauza berriak txertatu. Aurten Ainara Uribesalgok gorpuztu du Bitorianatxo. Eta jaiiei hasiera Aspace elkarteko Bergarako ordezkariak eman diote. Gipuzkoako Aspace elkarteak 50 urte bete ditu aurten, eta Bergarakoak 40.

Pertsona askoren lanari esker egin ahal izan dira jaiak, gazteek lan handia egin dute, eta lanean jardun duten guztiei eskerrak eman nahi dizkie Udal Gobernuak, eta baita jaietan parte hartu duten pertsonei ere, orokorrean izan duten jarrera onagatik.

El Gobierno Municipal valora de forma muy positiva el desarrollo de las fiestas de este año. Se han llevado a cabo todos los actos previstos, gracias al trabajo de mucha gente. El alcalde se alegra de haber podido ver a la gente disfrutar.







Hasi dira Agorrosingo futbol zelaia birmoldatzeko lanak

Construcciones Artzamendi, S.A. enpresak egingo ditu Bergarako Agorrosingo futbol zelaia birmoldatzeko lanak. Uztailaren hasieran abiatu dira, eta urriaren amaieran bukatzea aurreikusten da (tartean abuztua dagoela aintzat hartuta epea luza daiteke). Lanen adjudikazio kopurua 1.055.833 (BEZ barne) eurokoa da.

Las obras para la remodelación del campo de fútbol de Agorrosin han comenzado a principios de julio. En esta primera fase se va a cambiar el césped natural por uno artificial, que facilite la utilización intensiva y necesite menos mantenimiento.

BKE eta Bergarako Udalaren artean esku-aldatzea egin ondoren, Udalak du orain zelaia jabetzan.

Futbol-zelaiaren eremua eraikitzeari dagokio lanen lehen fasea da hau, esku-hartze zabalago baten parte dena. Proiektuak honako helburu orokor hauek ditu: berdeguneak sustatzea, ingurunean jarraipena izatea, mugikortasuna hobetzea eta espazioen balioaniztasuna eta jardun-eremuaren kohesioa.

Fase honetan belar artifizialeko jokaleku bat egingo da, zelaiaren kokapena partzelaren ipar-mendebaldera mugituz. Soropil sintetikoak jarriko da, futbol-zelai berria intentsiboki erabiltzeko aukera bermatuta egon dadin, eta mantentze-lan handirik beharko ez duena. Jokalekuak 105 m-ko luzera eta 68 m-ko zabalera izango du, eta hegaletan 1,50 m-ko kanpo-hegalak izango ditu, eta hondoetan 2,50 m-koak. Perimetroko pistak 4,50 m-ko zabalera izango du, eta segurtasun-banda perimetral gisa jardungo du. Gaur egungo atletismoko pista aldatu egingo da, eta lauki zuzena izango den pista perimetrala izango du berriak.

Gerora erabil daitekeen kirol ekipamendu osoa kendu ondoren, eraitsi egingo dira baranda zati bat, iparraldeko bloke-horma eta biltegia. Lurren mugimenduari ekingo zaio jarraian. Argiteriarako dorreak, ureztatze sistema... ezarriko dira. Geosare bat ere jarriko da gainazaleko lanekin hasi aurretik.

Belar artifiziala zolatzea: ureztatze-sarea osatu ondoren eta lanen azken fase gisa, zangen gainean 15 cm-ko behin-behineko geruza bat zabalduko da eta futbol-zelaiko belar sintetikoak instalatuko da.

Argiteriari dagokionez, led motako argiak izango dituzten lau poste jarriko dira, jokalarien eta ikusleen ikuspen ona bermatuko duen argiztapen uniformeak lortzeko, nahi gabeko itsualdirik gerta ez dadin. Ekipamendua jarriko da ondoren. Lanak amaitzeko, ateak eta banderatzak jarriko dira, dagozkion zimenduak egin ondoren.

Lehen fase honen ondoren gutxienez beste bi egongo dira. 2. fasean aldagelak, harmailak eta pista perimetrala egingo dira, eta 3. fasean hutsik gelditzen diren gainontzeko metroak.

Arrizuriagaren etorkizuna eraikitzeko prozesua abiatu da

Bergara izan, bizi, ekin planean, 2023. urtera arteko legealdian, Arrizuriaga jauregiari lotuta bi egitasmo jasotzen dira. Batetik, eraikina bera egonkortzea, eta bestetik, hari emango zaion erabilera zehaztea, alegia, bertan garatuko diren jarduerak herritarrekin batera adostea.

Begarako Udal Gobernuak badarama denbora tarte bat proiektuan eta egin beharreko prozesuan pentsatzen eta lanean. Arrizuriaga jauregiak kultur erabilera izatea nahi du, bere zentzurik zabalenean. Herritarrek erabiliko duten gune bat izatea da helburua, herri mailan egon daitezkeen dinamika ezberdinen gune izatea.

Horrekin batera, emakumeentzat espazio bat ere aurreikusi nahiko litzateke bertan. Emakumeentzat gunea sortzea ere aurreikusita dago Bergara izan, bizi, ekin planean. Dena dela, herriko emakume eta emakume taldeekin batera adostuko dira gune horren helburuak, zereginak, dinamikak...

Herritarrekin eta eragileekin Arrizuriagari emango zaion erabilera adosteaz gain, haren, kudeaketa eredua ere aztertu nahi da. Horretarako bilera irekiak egingo dira. Lehenengoa irailean egitea aurreikusten da eta landuko diren gaiak espazioaren erabilera eta kudeaketa eredua izango dira.

ERAIKINA BIRGAITZEA

Maiatzaren erdialdean hasi ziren eraikina egonkortzeko lanak, eta bost hilabetetan amaitzea aurreikusten da.

Arrizuriaga eraikina sendotzeko obren barruan, arbelezko estalki osoa berrituko da. Fatxadari dagokionez, finkatze, konpontze eta garbitze lanak egiteaz gain, egoera txarrean dauden arotzeriak eta hondatutako beirak ordeztuko dira.

Barrualdean, egoera txarrean dauden zeramikazko trasdosatuak eraitsiko dira, eta euskarri ez den banaketa oro eta zoladura arinak kenduko dira solairu guztietan. Solairu bakoitzean espazio huts bana sortuz. Bigarren fase batean egingo litzateke barruko lana.

Kontuan hartu behar dira eraikinaren beraren ezaugarriak ezein lan egiteko. Izan ere, Eusko Jaurlaritzaren ondare izendapena du jauregiak, eta horrek baldintza batzuk ezartzen ditu, kanpoko itxura, esaterako, ezin da aldatu.

Egonkortze lana "Goitu Eraikuntzak SL" enpresa egiten ari da, 547.964 eurotan (BEZ barne) esleitutako aurrekontuarekin.



Una vez comenzados los trabajos de rehabilitación de Arrizuriaga se pone en marcha el proyecto para definir su uso junto a la ciudadanía.



Aurreikusi bezala gauzatzen ari dira Zubietza kalea birgaitzeko lanak

2021. urte amaieran eremua prestatu ondoren, urtarrilaren 17an hasi ziren makinak lanean Zubietza kalean. Orain arte ez da ezustekorik sortu eta aurreikusitakoaren arabera gauzatzen ari da lanak Construcciones Zubieder SL enpresa.

Dagoeneko ikus daiteke aldaketa, espaloiak lehengoak baino zabalagoak dira, eta Zubietza kaleko 6. zenbakitik 22.era arteko gunea asfaltatu berri da (lehen fasean aurreikusita zegoen zati txiki bat bigarren fasearekin batera egitea erabaki da, bata bestearekin uztartuz). Ekaina bukaeran orain arteko lanen emaitza ikustera, eta obrako arduradunekin egotera joan da bertara udal ordezkari bat, Gorka Artola alkatea buru.

Errepidea itxita egon da, eta hala jarraituko du, Zubietza kaleko 36. zenbakiaren parean (zubira pasatzeko zebra bidean). Oinezkoentzat uneoro egon da bidea zabalik, aurretik esan zen moduan. Lanak errepidean hasi ziren, eta oinezkoek albo bietako espaloiak erabili ahal izan dituzte. Atarietara heltzeko pasabideak daude. Bestetik, espaloietako lanak banaka egin dira, beraz, txandaka albo bat edo bestea egon da oinezkoentzat erabilgarri, eta hala izango da hurrengo fasean ere.

Kalea itxita egonda ere, dagoeneko asfaltatuta dagoen zatiko bizilagunek (Zubietza 6-22) autoan karga-deskarga puntualetarako sartu-irteera, eta garaje erabilera duten lokaletara sarbidea ere baimenduta dute uztailaren 1az geroztik. Hala ere, ezingo da aipatutako gunean autorik aparkatu.

18 hilabeteko lana izango dela dago aurreikusita. Obra garrantzitsua da hau herriarentzat, "lehen aldiz urte bat baino gehiagoko aurrekontua baldintzatuko du proiektuak. Hiru urterako aurrekontua konprometituko du, guztira 2.350.000 euro inguru", Gorka Artola alkateak lanak hasi aurretik esan zuenez. Udalarentzat aspaldiko inbertsiorik handiena izango da hau.

Zubietza eta Masterreka kaleak birgaitzeko lanak hasi eta bost hilabete pasatxo ondoren, lanen bigarren fasea hasi da dagoeneko. Lehen bi faseak Zubietza kalean egingo dira, eta hirugarrena Masterrekan.



Las obras de reurbanización de la calle Zubietza se están desarrollando según lo previsto. Ha comenzado ya la segunda fase. Es una obra importante para el municipio, que es para el consistorio la mayor inversión económica de los últimos años.



Jardunaldietatik harago, urte osoan landuko dira aurrerantzean Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza ZTB jarduerak

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza ZTB jardunaldiak aldatuta datoz 2022an. “Urrats berri bat egingo dugu, eta udazkenean egin ohi ditugun jardunaldien barruan egiten dugun lana eta ekarpena urte osora zabalduko dugu, kultura zientifikoaren dibulgazioa indartuz”, azaldu zuen Bergarako alkateorde Ainhoa Letek maiatzean egindako aurkezpenean. Jardunaldiak zientziaren astearren testuinguruan egingo dira, azaroaren 2tik 11ra.

2021. urteko jardunaldien balorazioa egiterakoan, alde batetik, programazioak dimentsio handia izan zuela (24 jarduera eta 19 erakunderen lankidetzak) eta ekimen asko izan zirela baloratu zen, eta bestetik, denboran oso jarraian egiteak eraginkortasuna murriztu egiten zuela ondorioztatu. Hor du jatorria aldaketak.

Laboratorium Museoko arduradun Rosa Errazkinen ustez, “ezezaguna da askotan, baina eragin zuzena dute gure bizitzetan zientziak, teknologiak eta berrikuntzak, eta horregatik, beharrezkoa da jende guztiari zientzia gerturatzea, nolabait “zientziaratzeta”, 2021. urteko jardunaldietan esan genuen bezala. Horregatik ekimenetako asko publiko orokorrari zuzendutakoak izango dira”. Espezialistei zuzendutako jarduerak ere programatu dira.

Horretarako, ohi bezala, askotariko diziplinak landuko dira, formatu anitzetan, publiko desberdinari bideratuta, eta erakunde zein eragile desberdinen eskutik. Elkarlana baita jardun honen zutabe garrantzitsuetako bat.

Dagoeneko egin dira jarduera batzuk, esaterako, fisika esperimenduak; Laboratorium Museoko udako eskaintza; Steam Koin, Steam komunitatea indartuz Miguel Altuna Lanbide Heziketan edo Jot Down lehiaketa.

Hezkuntza eskaintzari lotuta, eta Miguel Altuna LHIIko LHLko teknikari Oihana Garmendiak azaldu zuenez, gazteei begirako hainbat ekimen egingo dira. “Hezkuntzarako proposamen osatua egin dugu elkarlanean. Honela, ikasleek hitzaldiak jasoko dituzte adituengandik, tailerrak eta aurkezpenak adibidez, baina are garrantzitsuagoa eta emankorragoa iruditzen zaigu haiengana hurbiltzeko bestelako ekitaldiak egitea, hala nola, aipatutako DBH3ko ikasleei zuzendutako 'Steam-koin' – Steam komunitatea indartuz, edota LH5 eta LH6koei zuzendutako 'Scape room' Teknologikoa.

Azaroan egingo diren jardunaldietan indartuta dator Wolfram encounterra, Maijoku eta Game Erauntsia taldeen arteko elkarlanarekin gauzatuko baita. “Bien artean euskara bideojokoen munduan ere murgilduta dagoela erakutsiko da ekimen ezberdinekin: Hitzaldi bat, Game Erauntsia komunitatea ezagutzeko eta euskarak bideojokoen arloan bizi duen egoera aztertzeko; Lol txapelketa online, finala aurrez aurre jokatu da; eta Minecraft-en Bergara eraikiko dute parte-hartzaileek”, Udaleko Garapen Saileko teknikari Marije Unamunok azaldu zuenez.

Con el objetivo de ganar eficacia, las jornadas sobre ciencia, tecnología e innovación ZTB se refuerzan con actividades repartidas durante todo el año.



Trabajar para mejorar la movilidad

La empresa Leber ha realizado un estudio sobre la movilidad en Bergara a petición del Ayuntamiento, que propone diversas propuestas para mejorar la movilidad. Éstas han sido analizadas por el Gobierno municipal que ha marcado las prioridades. El citado estudio se presentó a la ciudadanía en una reunión informativa realizada el 22 de junio

El próximo paso será integrar en la medida de lo posible las sugerencias realizadas por las personas que participaron en la reunión y cerrar el documento de propuestas, que será la base para el plan de movilidad que se pueda hacer posteriormente.

La batería de propuestas realizada por la empresa consultora especialista en movilidad, se ha desarrollado siguiendo criterios de sostenibilidad. Se han analizado cinco áreas, y en cada una de ellas se han propuesto objetivos y acciones, para las que el Gobierno Municipal ha establecido prioridades.

Las áreas son: movilidad peatonal, transporte público, bicicleta, tráfico y aparcamiento.

En cuanto a peatones, y como se ha podido observar en el diagnóstico, el movimiento interno peatonal es importante

en Bergara. El objetivo principal en este campo es mejorar la experiencia de vivir y moverse andando por Bergara. El Gobierno municipal ve en este sentido, y como prioridades a corto plazo, la implantación de medidas de relajación del tráfico, la ampliación de aceras en Zubieta y Masterreka y la puesta en marcha de la iniciativa Metrominutu.

En cuanto al transporte público, su uso es del 3% en los desplazamientos internos y del 23% en los externos. El objetivo es mejorarlo y las prioridades que el Gobierno municipal ve para abordar a corto plazo son: adoptar medidas para incrementar el uso del taxi vecinal y el Herribus -proponiendo, por ejemplo, compartir uso y gasto- y promover el nuevo servicio Taxi Lagun para acercar a las personas mayores al ambulatorio.

El uso de la bicicleta en Bergara es bajo; del total de desplazamientos globales, el 2% se hacen en bicicleta y las mujeres apenas la utilizan. El objetivo es, por tanto, incrementar progresivamente su uso. Para ello, el Gobierno considera necesario trabajar a corto plazo la ampliación de los aparcamientos de bicis, la implantación de carriles bici (con usos compartidos de coche/bicicleta) y la red de bidegorris (conexión a Antzuola).

El Gobierno también ve prioritarias las medidas para relajar el tráfico, aumentando la sostenibilidad y la seguridad.

“Una vez analizados los recursos de aparcamiento con los que cuenta Bergara, y atendiendo a criterios de sostenibilidad, más que la construcción de nuevas infraestructuras, consideramos que la gestión eficiente de los aparcamientos en la calle es clave para lograr una movilidad más sostenible en el pueblo”, señala el estudio realizado por Leber. El Gobierno Municipal considera que ese análisis debe realizarse a medio plazo.

Bergarako mugikortasuna hobetzeko helburuarekin horren azterketa egin du Leber enpresak, eta proposamen sorta bat egin du. Lan hori izango da etorkizunean egin daitekeen mugikortasun planaren oinarria.



Bergarako emakumeen eta gizonen berdintasunerako bidean urrats berriak egin ditu Udalak



“Berdintasunaren arloan aurrera urrats garrantzitsua egingo du Bergarako Udalak, batetik, III. Berdintasun Plana, 2022tik 2025era bitartean indarrean egongo dena, martxan jarrita. Eta bestetik, aspalditik zegoen behar bati erantzunez, lehenengo aldiz Berdintasun teknikaria izango baitu Udalak, eta modu horretan arloari, eta Berdintasun Planari indar handiagoz, estrategikoki, erantzun ahal izango zaio”. Alkate orde eta Berdintasun zinegotzi Ainhoa Leteren hitzak dira.

El Ayuntamiento de Bergara da pasos firmes hacia la igualdad entre mujeres y hombres con el III. Plan de Igualdad y la contratación por primera vez de una técnica de igualdad.

Apirilaz geroztik Maria Salsamendi Luengo da Bergara Udaleko Berdintasun teknikaria. Berdintasunean eta politika feministetan esperientzia handia du, bai esparru publikoan zein pribatuan, eta bere gidaritzapean gauzatuko da Berdintasun Plana.

II. Planaren balorazioa egin ondoren, III. Berdintasun Plana egin da, metodologia parte-hartzailea erabiliz. Letek parte hartu duten pertsona guztiak eskertu zituen aurkezpenean.

Bergaran Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planaren oinarria diren lau esku-hartze, lan ildo zehaztu dira, horrelako planetan ohikoa denez, eta hauen garapenerako helburu eta ekintza zehatzak diseinatu dira. Horiek izango dira 2025era arte Berdintasun arloaren politika eta programen bide orria. Gobernu ona; emakumeen ahalduntzea; ekonomia eta gizarte antolakuntza eraldatzea, eskubideak bermatzeko; emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko herria.

Gobernu onaren atalari dagokionean, hiru helburu nabarmendu zituen Berdintasun teknikari Maria Salsamendik, Planean jasotzen direnak. Lehenengoa, udal langile eta arduradun politikoek haien jardunean genero ikuspegia txertatzea. Bigarrena, Udalak erabiltzen dituen ohiko prozesu eta prozedura administratiboak emakumeen eta gizonen berdintasunean eragiteko baliagarriak izatea. Hirugarrena, udal mailako politika publikoetan herritar guztien eta bereziki emakumeen partaidetza ahalbidetzea eta bermatzea.

Emakumeen ahalduntzeari dagokionez, helburuak dira: herritarren sensibilizazioarekin jarraitzea; emakumeen ahalduntze pertsonal eta kolektiborako ekimenak bultzatzea eta emakumeen parte-hartze soziala eta politikoa sustatzea, esaterako Berdintasun Kontseilua indartuz. Ekimen bat ere nabarmendu zuen teknikariak: “emakumeentzako espazio bat sortzeko prozesuaren lehen urratsen diseinua eta garapena”.

Ekonomiak eta gizarte antolakuntza eraldatzea, eskubideak bermatzeko atalean hiru helburu: Zaintza lanen balioa aitortzea, Bergarako enpresetan berdintasuna eraldaketarako tresna dela lantzea eta hezkidetzaren ildo estrategikoa garatzea.

Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko herria atalean bi helburu eta hainbat ekimen: Herritarraren sensibilizazioan eta prebentzioan eragiten jarraitzea eta indarkeria matxistaren bizi duten emakumeei beharrezko arreta eta babesa ematea.



Bergarako ortu komunitarioetako uzta jasotzeko gertu

Bergarako Udalak 98 udal partzela herritarren eskura jarriko ditu San Joxepen aisialdirako ortu modura erabiltzeko.



Udalak aisialdi aktiborako eta inklusiborako topagune bat sustatuko du, gizatalde ezberdinen arteko elkarbizitza eta harremanak nahiz belaunaldi ezberdinen arteko trukea bultzatzeko; eta, aldi berean, nekazaritza ekologikoari bultzada bat emateko. Helburuetako bat aisialdia den heinean, baratze hauetatik ateratako produktuak saltzea debekatuta egongo da eta, beraz, norberak kontsumitzeko eta etxeko erabilerarako soilik diren produktuak bakarrik landatu ahalko dira.

Ortuen esleipena zozketa bidez egingo da. Zozketan parte hartzeko epea uztailaren 14an amaitu da. Parte-hartzaileen behin betiko zerrenda argitaratzen denean, zozketaren eguna, ordua eta lekua jakinaraziko dira.

Partzelak 1 zenbakitik 98ra zenbatuak daude. Zozketatuko diren lursailak 96 izango dira guztira, izan ere 2 lursail zozketatik kanpo utziko dira. Baldintzak betetzen dituen eskatzaile bakoitzari zenbaki bat emango zaio zozketarako. Bi zenbaki emango zaio berriz, alegatu eta egiaztatu duenari langabezia dagoela edo gizarte larrialdietarako laguntzen onuradun dzzela.

Bestalde, belaunaldi arteko harremana sustatzeko, hiru adin-tarte ezarri dira, eta bakoitzerako kuota edo baratze kopuru bat gordeko da.

Ustiapenerako erabilera-baimena urtebeteko aldirako emango da, urte bakoitzeko abenduaren 31ra arte, eta gehienez 2025eko abenduaren 31ra arte.

Ortu publikoen erabilerari dagokion tasa ordenantza fiskaletan ezarritakoa izango da. Adjudikazio-hartzaileek ezarri beharreko fidantza berriz 50 eurokoa izango da. Partaidetza prozesu baten bidez landu da ortuen proiektua herritarrekin, hainbat bilera ireki eginez. Prozesuko parte hartzaileei informazio zuzena eman die Udalak aldian-aldian.

MARITXU BARRENA ARANBURU

“Prozesua oso ondo planteatuta egon da eta uneoro informazioa jaso dugu”

Gure etxean beti izan dugu gogoia jubilatutako ondoren lursail bat edukitzeko. Baserritarrei galdetuta, ez genuen ezer lortu, eta proiektu hau ezagututa, segituan eman genuen izena. Tokatzen bazaigu, familiarentzat nahiko gureko ortua, denon artean lantzeko, etxeko txikiak izan dezaten naturarekin harremana eta gutxiago erabil ditzaten gailu elektronikoak. Oso pozik gaude denok etxean. Komunitarioa izateak aukera emango digu harremanak sortzeko eta elkarri laguntzeko, komunitate txiki bat sortzeko, eta ikasteko. Asko gustatzen zait ikastea. Egin den prozesua gainera oso ondo planteatuta egon da, jarraipen bat egon da eta informazioa jaso dugu, nahiz eta gero atzerapena sortu.



EDORTA LOPEZ DE ABERASTURI
LOPEZ DE MENDIGUREN



“Ortua ondo jan ahal izateko nahiko nuke”

Arrazoi ekonomikoengatik daukat interesa, ondo jan ahal izateko. Langile klasearen erosmen ahalmena nabarmen jaitsi da azken urteotan eta kalitatezko elikagaiak erostea gero eta zailagoa da. Langabezia nago eta adinean aurrera noa. Kalitate txarra dute produktuek eta garestiak dira. Hau izan da garai batean bezala, ondo, elikatu ahal izateko ikusi dudana bidea. Politikoki ere interesgarria iruditzen zait proiektua, autosufiziente izateko urrats bat da, globalizazioaren aurrean. Sozializazioarako ere balioko du. Bestetik, gustatuko litzaidake gazteak lehenengo sektorerara gerturatzeko balio izatea. Esleitzen direnean, denbora mugatzea ez dut egoki ikusten, eta uste dut guztiz doan izan beharko liratekeela.

ELENA ZARATE

“Pertsonen inklusiorako balioko dute”

Goyeneche Fundazioaren Bergarako Garagunean badago pertsona bat, Fernando Hernandez, interesa duena tomateak, letxugak... landatzeko. Etxeko terrazan eta Garagunean landatzeko aukera badu, baina mugatua da, eta ortua izatea gustatuko litzaioke. Beste batzuk ere partekatzen dute gogo hori, Iban Zarobek (argazkian), kasu. Pertsonen desioa eta beharrei erantzuten saiatzen gara gu, eta hortik dator prozesuan parte hartzearen arrazoia. Aukera berriak bilatzen saiatzen gara, eta hau izango da horietako bat. Inklusiorako balioko dute ortuek, sare bat sortzeko, alegia. Naturarekin harremana izaten, aktibo izaten lagunduko digu, halaber, ortuak, eta 0 km. produktuak izaten. Oso eskertuta gaude Bergarako Udalak gu entzuteko duen jarrerarekin, eta harengandik oso gertu sentitzen gara.



Una vez finalizado el plazo de inscripción el 14 de julio, en breve podrán comenzar las personas adjudicadas por sorteo trabajando en las huertas comunitarias de San Joxepe.

El Hórreo de Agarre recupera su esplendor

A mitad de julio han finalizado los trabajos realizados para la preservación del Hórreo de Agarre. Hace varios años que no se había realizado ningún trabajo y el deterioro era visible.



En una visita de inspección realizada por la empresa TSA Conservación de Patrimonio, experta en conservación del patrimonio a finales de 2021, apreciaron la presencia de agentes xilófagos de deterioro de tipo larvario, carcoma, así como hongos de pudrición. Así mismo apreciaron que en la cubierta del Hórreo habían empezado a proliferar vegetación y malas hierbas.

Por lo que el Ayuntamiento de Bergara vio necesario tomar medidas para que el deterioro no fuera en aumento, razón por la cual se han llevado a cabo una serie de actuaciones para su preservación. Se han eliminado los organismos xilófagos vegetales que afectaban a la base de madera por su parte inferior. Se han tratado las superficies de madera y eliminado las hojas y plantas que habían germinado en la cubierta y aplicado herbicida.

La mayor parte del trabajo lo ha realizado la empresa ya citada, excepto el retejo que ha sido realizado por la empresa Ramel. Los trabajos han tenido un coste de cerca de 10.000 euros.

ÚNICO EN GIPUZKOA

Rehabilitado en la década de 1980, el de Agarre (o Agirre) es el único hórreo del siglo XVI que se conserva en Gipuzkoa.

Construido en madera de roble, perfectamente machihembrado, sin clavos, la superficie de su tejado es de 100 metros cuadrados, el doble de su interior con unos grandes aleros imprescindibles para hacer frente a la humedad.

Por dentro, dos pequeños silos y un piso principal. Este último consta de tres partes: dos secaderos laterales y una nave central, como protección contra los roedores, en la que encontramos un gran arcón.

Construido en madera de castaño, a la vista de su tamaño se puede deducir que dicho arcón fue construido en el interior del hórreo, ya que sería imposible meterlo por la puerta. En él se almacenaban por separado el trigo y el maíz.

Debido al pésimo estado de conservación de las pilastras y los soportes del edificio, para su restauración se recuperaron partes de otro antiguo hórreo perteneciente al caserío Etxeberri Urruti del barrio de Ubara.



Agarreko garaia babesteko hainbat lan egin berri dira, teilatuan hazitako belar txarrak kendu zaizkio, pipien eta larben kontrako tratamendua egin... XVI. mendeko garaia bakarra da Gipuzkoan.



Alkar Lankidetza Gunea zabalduko du Bergarako Udalak UNED-Bergararekin elkarlanean


Ekintzailetasuna sustatzeko ekimen berri bat eskainiko du Bergarako Udalak 2022-2023 ikasturtetik aurrera. Haien kabuz lanean ari diren pertsona ekintzaileak lanerako espazio faltan egoten dira maiz, eta Bergarako Udalak behar horri erantzuteko *Alkar Lankidetza Gunea* zabalduko du.

Udalak UNED-Bergararekin sinatutako akordio bati esker, UNEDak lagako duen espazioan lanerako gunea atonduko du Udalak. Ekaineko osoko bilkurak gunearen erabilera arautuko dituzten ordenantzei hasierako onarpena eman ondoren, 2022. urteko irailean zabalduko da eskaerak aurkezteko epea, eta asmoa da urritik aurrera, ikasturtea hastearekin bat, lankidetza gunea martxan jartzea.

Alkar Lankidetza Gunearen helburua da Bergara eta Debagoieneko ekintzaileei lanerako espazio partekatu bat eskaintzea; lankidetzazko ekonomia ereduaren oinarrituta, sinergiak sortzeko, elkarrekin ikasteko, harremanak sustatzeko eta proiektuak eta ezagutzak partekatzeko balioko duena.

Bergaran edo Debagoienean errolatutako ekintzaileek egin ahal izango dute espazioa erabiltzeko eskaera. Lanerako plazarekin batera, partekatuko diren espazio eta zerbitzuak ere egongo dira erabiltzaileen eskura.

Alkar Lankidetza Gunearen erabilera epe baterako izango da, erabilerarako ordenantzan jasotzen diren baldintzen arabera, alegia. Ordutegiari dagokionez, UNED zabalik dagoen ordutegi bera izango du, eta indarrean dauden prezio publikoak ordaindu beharko dituzte onuradunek. Bergarako Udalaren Garapen Zerbitzuaren bitartez kudeatuko da.





780 haur eta gaztetxo ari dira Udalaren udako aisialdirako eskaintzan parte hartzen

Askotarikoak dira aurtengo udarako ere haur eta gaztetxoei zuzenduta Bergarako Udalak aisialdirako prestatu dituen ekintzak.

Ekainaren bukaera hasi ziren udaleku irekiak, kirol kanpua eta Laboratoriumeko udako eskaintza, eta

guztira 780 haur eta gaztetxo ari dira horietan parte hartzen. 128.000 euroko aurrekontuarekin gauzatzen ari dira ekimenak.

Aurten ahalegin berezia egin du Udalak eskaerari erantzuten, eta hari egokitu dio eskaintza. Modu horretan, izena

emateko ezarritako epearen barruan jasotako eskaera guztiei erantzun zaie. Elkarlanean osatu da eskaintza, eragile desberdinen ekarpenekin. Esaterako, herriko ikastetxe guztiek, iaz hasitako bideari jarraituz, haien azpiegiturak jarri dituzte eskura. [1]

Valogreene kasuan bide administratiboa amaituta udal ordenamendua defendatzeko eman beharreko urratsak aztertzen ari da Udala

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak VALOGREENE PAPER BC, S.L enpresari Ingurumen Baimen Bateratua eman dio ekainaren erdialdean. Aipatu ebazpena apirila hasieran jaso zuen Udalak, eta orduan adierazi bezala gorako errekurtsua ezarri zuen. Errekurtsuaren erantzuna ekainaren 9an jaso zuen, eta egindako eskaerak, berriz ere, ez ditu onartu Ingurumen Sailak, Udalaren eskumeneko adierazpenei muzin eginez.

Hori horrela, bide administratiboa amaitu egiten da, Bergarako Udalak egindako alegazioak eta gora jotzeko errekurtsuak onartu gabe. Hortaz, udal planeamenduaren defentsan eman beharreko hurrengo pausoak aztertzen ari da Bergarako Udal Gobernuak. Aurretik ere esana du foro desberdinetan, baita enpresari berari

ere, harekin izandako hartu-emanetan, udal ordenamendua defendatzeko eta bergararrak babesteko beharrezkoak diren urrats guztiak egingo dituela.

Eusko Jaurlaritzak hartutako erabaki horrek Bergarako udalbatzak aho batez onartutako Plan Orokorren kontra egiten du, izan ere, indarrean dagoen Plan Orokorrak ez baitu jasotzen hondakinen kudeaketarako azpiegitura erabilera, eta beraz, ez dago Larramendi industrialdeko H partzelan onartuta. Bestetik, hondakinen kudeaketaren erabilera ere ez da bateragarria, erabilera osagarri bezala onartuta dagoelako, baina ez erabilera nagusi bezala. Eta, halaber, ez du aintzat hartzen Bergarako hiri ordenamenduak dioenari jarraituz emandako kontrako hirigintza bateragarritasun txostena ere.

Klima aldaketari aurre egiteko helburuarekin ari da garatzen Bergara 2030 bizi energia

2030 urtera begirako Klima eta Energiari buruzko Tokiko Plana diseinatzeko asmoz, Bergarako Udalak Bergara 2030 bizi energia izeneko prozesua abiatu zuen martxoan. Lehenik eta behin, prozesuaren jarraipenaz eta zuzendaritzaz arduratzen ari den lantaldea osatu zen eta une honetan herriko egoeraren inguruko diagnostikoa idazteko fasean murgilduta dago. Prozesu osoan zehar herritarren ikuspuntua eta iritziak jasoko dira. Diagnostikoaren fasean herritarrei galdetegia egin zaie. [3]





Jose Luis Elkorok eta Mari Karmen Ayastuik jaso dute aurten Monzon-Ganuz saria

2021eko martxoaren 9an Telesforo Monzon hil zenaren 40. urteurrenaren testuinguruan sortu zuten Bergarako Udalak eta Olaso Dorrea Fundazioak Monzon-Ganuz saria. Euskal Herriari, euskal kulturari eta bere hizkuntzari, euskarari, bizi osoko lana eskaini dioten herritarrak omentzea du helburu.

Jose Luis Elkorok eta Mari Karmen Ayastuik jaso dute saria 2022an, "oso eskertuta eta emozio handiarekin". Euskal utopiko guztiei esker herri honetan egindako lana eta hortik jasotako emaitzak nabarmendu zituen Elkorok bere hitzartzean. Ayastuik, urtetan egin duten lanaz, "herriarentzat egin dugun lana ez dugu eginbeharretik egin, maitasunetik baizik", esan zuen. Eta, hain zuzen ere, Elkororen eta Ayastuyren egiteko modu horretan jarri zuen indarra Bergarako alkate Gorka Artolak bere hitzartzean. Ayastuyren eta Elkororen "biengrafiak" errebasatuta, herri honen ertz ezberdinak ukitzen direla ere nabarmendu zuen Artolak, esaterako, boluntariotza, herrigintza, ekintzailetza ekonomikoa, hau euskaratzeko ahalegina, errepresioa eta kartzela, elkartasuna... [4]

Bergarako enpresetan euskararen normalizazioan urrats berria Harixa ekimenaren bitartez

Bergara izan, bizi, ekin planean lan-munduan euskararen erabilera sustatzeko proiektua garatzea jasotzen da, eta hortik tiraka sortu da hiru-lau urterako Harixa egitasmoa. Udaleko Euskara eta Garapen sozio-ekonomikoa sailetatik bideratzen ari den egitasmoa 2021. urteko maiatzaren amaieran aurkeztu zitzaizen horretarako osatu den lan-mahaiko kideei. Ordutik lanean jardun du, eta 2022ko apirilean egindako bileran lan-mahaia aurrera begirako ildo nagusiak finkatu zituen. Ekainaren amaieran enpresekin egindako bileretan hitzarmen bat egitea proposatu zaie.

Lan handia egin da herrian zein eskualdean lan-munduan euskara txertatzeko eta sustatzeko, hortaz, ekimena ez da hutsetik abiatu, eta bertan parte hartzen duten eragileak ildo horretan esperientzia handia metatu dutenak dira. [5]



Labegarietako Skate parke berritua gune inklusiboa da

Apirilaren bukaeran inauguratu zen Skate Parkea Labegarietan. Proiektuaren helburua izan da lehendik zegoen espazioa eraberritzea eta dinamizatzeko skateboard, roller, bmx eta scooter hiri-kirolen erabiltzaileentzat, eta eskaintza hobetzea.

Profil desberdinak dituzten erabiltzaileentzat moldatu da, zirkuitu moldakorragoa eta dinamikoagoa izan dadin, eta horrela espazioa inklusiboagoa eginez. Lurra leundu egin da, eta hainbat elementu jarri, oztopo berriak eta hormigoizko arrapalak, esaterako. [6]

LGBT+ bizitzek balio dutela aldarrikatu du Bergarak ere

Ekainaren 28an ospatzen den LGBT+ harrotasunaren egunaren testuinguruan, hainbat lanketa egin ditu gaiari lotuta Bergarako Udalak. Batetik, eta orain dela urte batzuk abiatutako bideari jarraituz, hainbat merkataria eta ostalariek haien establezimenduak 'gune anitz' izendatu dituzte eta hori adierazten dituzten itsaskorrak jarri. Bestetik, Bergarako udal liburutegiak, berdintasunaren gaiari lotuta duen liburuen sorta handitu du, eta herritarrentzako eskuragarri jarri ditu LGBT+ gaia lantzen dituzten dituztenak, bai helduentzat, eta baita haur-gaztetxoentzat ere. Adierazpen instituzionala ere egin zuen udalbatzak. [7]



[1] 780 menores participan en la oferta de ocio de verano del Ayuntamiento, en las colonias abiertas, el campus deportivo y la oferta del Laboratorio, con un presupuesto de 128.000 euros. [2] El Ayuntamiento estudia los próximos pasos a dar en el caso de la planta que quiere instalar VALOGREENE PAPER BC, S.L después de recibir el permiso medioambiental por parte del Gobierno Vasco. El objetivo del consistorio es defender el ordenamiento municipal y proteger a la ciudadanía. [3] Con el objetivo de hacer frente al cambio climático, se está realizando un Plan Local hasta 2030. [4] Jose Luis Elkorok eta Mari Karmen Ayastuik jaso dute aurten Monzon-Ganuz saria, por su labor realizada por y para Euskal Herria, su cultura, su lengua, etc. [5] Nuevos pasos en la normalización del euskera en las empresas a través de la iniciativa 'Harixa'. [6] El nuevo Skate Park de Labegarieta invita a practicar este deporte a todo tipo de personas. [7] En el contexto del 28 de junio se ha reivindicado que las vidas LGBT+ también valen. Se han llevado a cabo numerosas iniciativas, como ofrecer libros ligados a esta temática en la biblioteca municipal.



Arin eguneko arreta zerbitzua zabaltzeko urratsak egiten ari da Udala

Intentsitate txikiko laguntza behar duten pertsona nagusiei zuzendutako Arin zerbitzua martxan jartzeko lanean ari da Bergarako Udala. Asmoa da udazkenean zabaltzea.

Gisa honetako zerbitzuek egunean zehar erabil dezaketen ekipamendua jartzen dute erabiltzaileen eskura. Eta pertsona horiei arreta emateko premia espezifikoekin lotutako intentsitate txikiko laguntza eskaintzen zaie. Zerbitzua Boni Laskuraineko gizarte etxeko eraikinean eskaintzea aurreikusten da. Hala ere, taldeen osaketaren arabera beharra badago, beste guneren batean ere eskaintzeko aukera aurreikusita dago. Zerbitzua astelehenetik ostiralera 10:00etatik 13:00etara bitartean eskaintzea aurreikusten da, jaiegunetan eta oporraldietan izan ezik. Hala ere, egutegia jarduera mota bakoitzean izena emanda dauden talde eta pertsonen egokitzeko aukera egon daiteke. Hasiera batean, eta ordutegi horretan, 12 lagun hartzeko lekua egongo da. [1]

Amaiurko memoria demokratikoa jasotzen duen erakusketa ikusgai Laboratorium Museoa

Bergarako Laboratorium Museoa ikusgai dago ekainaren 20az geroztik 'Amaiur 1922-1936 Memoria demokratikoa' erakusketa. Gure historian erreferentea den memoria tokiaren ibilbide historikoa biltzen duen aldi baterako erakusketa da. Ekainaren 20tik irailaren 11ra bitarte egongo da bertan. Bisita gidatuak egingo dira uztailan eta abuztuan



(informazioa laboratorium.eus webgunean). Erakusketaren antolatzaileak Laboratorium Museoa, Olaso Dorrea Fundazioa eta Bergarako Udala dira, Aranzadi Zientzia Elkartaren komisiariotzarekin. [2]

Kafekonpon bueltan da maiatzaz geroztik



Gaur egun, etxeko tresna txikiren bat hondatzen denean ohikoa da hura bota eta berria erostea, konpontzen saiatu gabe. Baina, askotan, konpontzea uste baino

errazagoa da. Berrerabiltzeko eta konpontzeko filosofiari jarraitzen dio 'Kafekonpon' egitasmoak. Baztertutako tresnak dituzten pertsonak eta haiek konpontzen laguntzeko prest dauden "esku-trebeak" batzen dituen egitasmoa da. Osasun pandemiak eraginda etenda egon da ekimena, baina berriz ere martxan dago, hileko bigarren asteazkenean da hitzordua, 16:00etatik aurrera San Joxepen. [3]

Boluko malda egonkortzeko lanak esleitu dira

Boluko malda egonkortzeko lanen bigarren fasea uztailan bertan esleitu zaio Construcciones Zubieder SL enpresari, eta ezustekorik ezean abuztuaren erdialdean hasiko dira lanak. Azaleko irristaketen eragina geldiaraztea helburu duen hesi malgua jarriko da. Hesia egun dagoenari erantsita joango da, eta haren bi aldeetan zabalduko da. Bidegorriari erantsitako ezpondaren buruan indusketa bat egitea planteatzen da. Bestetik, bidegorri-pasabidearen kanpoko ertzean hesi estatiko bat jarriko da, irristatzeen aurkako segurtasun-hesi erredundantea izango dena. Hesi malguarekin bezala, bi aldeetan dagoena handituko da. Azkenik, bidegorriko plataformaren drainatze-sistema hobetuko da. [4]

Boluko igogailuetarako pasabideak berritzeko lanak egiten ari dira

Uztailaren 4an hasi eta abuztuaren 18ra bitartean Boluko igogailuetarako pasabideak konpontzeko egiten ari diren lanak direla-eta, igogailuetako batzuk tarteka itxita egongo dira. Uztailaren 4tik abuztuaren 15era, Koldo Eleizalde 24 pareko igogailua. Uztailaren 7tik abuztuaren 18ra, Koldo Eleizalde eta Iriburu kaleak lotzen dituen igogailua. Lanok 'Construcciones Zubieder SL' enpresari 139.256 eurotan (BEZ barne) adjudikatu zitzaizkion. Obren zuzendaritza, berriz, 'Sestra Ingeniería y Arquitectura SL' enpresari 12.705 eurotan (BEZ barne), proiektu teknikoak, halaber, azken honek idatzi du. Horretarako adjudikazioa 17.545 eurotan (BEZ barne) egin zitzaion. [5]

[1] El Ayuntamiento está dando pasos para la apertura del servicio de atención a personas mayores dependientes de baja intensidad Arin. [2] Exposición sobre la memoria democrática de Amaiur en Laboratorium Museoa hasta el 11 de septiembre. [3] Ha vuelto Kafekonpon (iniciativa para reparar pequeños electrodomésticos) a San Joxepe, el segundo miércoles del mes a partir de las 16:00 horas. [4] En breve se adjudican los trabajos para la segunda fase de la estabilización de la ladera de Bolua. [5] Se están renovando las pasarelas a los ascensores de Bolua, por lo algunos días estarán fuera de servicio.



Ikusezina argitara ekartzeko aleak jartzen

Jot Down zientziaren dibulgazio-lehiaketaren sariak banatu ditugu ekainean



Bederatzigarren aldiz antolatu da Jot Down Ciencia dibulgazio-lehiaketa. Izen bereko kultura-aldizkari ezagunak sortutakoa da lehiaketa, eta gaur egun, Donostiako DIPC-rekin, Canfranc-eko Lurpeko Laborategiarekin, Sevillako Unibertsitatearekin eta Bergarako Laboratorium Museoarekin lankidetzan antolatzen du. Laboratorium 2021. urtean batu zen ekimenara, ilustrazio zientifikoaren saria ematen.

Ekainaren 10ean eta 11n egin da Jot Down Ciencia 2022 ekitaldia, Jacan (Espainia). Lehen edizioak Sevillan egin zituzten, eta iaz, berri, Donostian. Dibulgazio-hitzaldiak, ikuspuntu zientifiko eta sozialetatik jorratutako zientziaren ikusezintasunari buruzko mahai-inguruak eta lehiaketaren sari-banaketa egin dira, esaterako, Jacako kongresuen jauregian egindako ekitaldian. Lehen egunean, Canfranc-eko Lurpeko Laborategira bisita gidatua ere egin zuten parte-hartzaileek. Lehiaketak saiakera, narrazio, ilustrazio eta argazki modalitateetako lanik onenak saritu ditu 2022an:

- Zientzia-dibulgazioko saiakera onenaren saria. El poder invisible del lenguaje, Lorena Perez.
- Zientzia-fikziozko narratibarik onenaren saria. El ojo que no ves, Carlo Frabetti
- Ilustrazio zientifiko onenaren saria. Lo invisible, Maddi Astigarraga Bergara.
- Argazki zientifiko onenaren saria.

Energía sostenible, Aldo Luján Zanetti.

Irabazleek 1.000 euroko sari bana jaso dute, eta finalistek Jot Down eta Merkurioren urteko harpidetza eta liburu-sorta bat. Lan finalistak hainbat argitalpenetan argitaratuko dira, besteak beste, Jot Down, Merkurio eta Jot Down Kids aldizkarietan.

Laboratoriumen izenean museoko arduradun Rosa Errazkinek eta Bergarako Udaleko alkateorde Ainhoa Letek eman zioten ilustrazio zientifiko onenaren saria Maddi Astigarraga debarrari. UPV-EHUK Laboratoriumeko laguntzarekin ematen duen Ilustrazio zientifikoaren masterreko ikaslea ere bada irabazlea.

Astigarragak egindako *Lo invisible* lanak hiru emakume zientzialariren irudiak jasotzen ditu. Cecilia Payne-Gaposchkin, Inge Lehmann eta Rosalind Franklin.



Bergarako udal artxiboa herritarren-gandik gertuago

Bergarako udal artxiboa “kalera ateratzeko” eta herritarrei gerturatzeko hainbat ekimen egingo dira. Ondarea gordetzea garrantzitsua bada ere -horretan Bergarako artxiboa eredugarria da-, are garrantzitsuagoa da ondare hori ezagutaraztea eta guztien eskura jartzea, bereziki belaunaldi berriek izan dezaten haien herriaren ezagutza eta kontzientzia.

Milaka dokumentu, material mota desberdinetakoak, daude dagoeneko digitalizatuta, adibidez, 23.000 testu baino gehiago eta 36.000 argazki baino gehiago. Horiek eta gehiago daude eskuragarri.

Hilabetetan egindako lanaren emaitza da berritutako webgunea, artxiboak, informazioa are eskuragarriago jarri dituen, eta herritarren parte-hartzea sustatzeko ere proposamenak egingo dira. Itxura aldetatik harago, funtzionalitateak gehitu zaizkio, eta erabiltzeko errazagoa da. Modu horretan, behar desberdinak dituzten pertsonen erantzuteko prestatuta dago.

Aipagarria da, halaber, funtsa ikusteko erakusten den formatua. Alde batetik bestera, eta goitik behera eginda, aukera ematen du bilatzen ari zaren dokumentu horren testuingurua ere ezagutzeko, eta hori ikerketan oso baliagarria da.

Argazkiak zuzenean deskargatzeko aukera dago orain Creative Commons 4.0 lizentziarekin. Otsailaren erdialdean jarri zen erabilgarri webgune berritua, eta lau hilabetetan ia 25.000 deskarga egin dituzte erabiltzaileek.

Webgunea eskuragarriagoa egitearekin batera, *Argazkiak kalera* ekimenari jarraipena emango zaio, udal artxiboan dauden argazki batzuk tamaina handian herriko leku esanguratsuetan jarritz, gure historia ezagutaraziz eta aitortuz.

Herritarren parte-hartzea ere bultzatu nahi du Udalak, deialdi desberdinak eginez. Esaterako, argazkietan dauden pertsonak eta lekuak identifikatzen lagun dezaten eskatuz herritarrei. Edota esku-izkribuak transkribatzeko proposamena eginez. Gazteei zuzenduta ere, material didaktikoaz gain, erakargarriagoa egingo zaion ‘Escape room’ birtuala proposatuko da laster.

Webgunean bertan ere parte-hartzeko aukera ematen da. Esaterako, esku-izkribuak transkribatzen. XIX. mendeko arteko dokumentuak eskuz idatzita daude, eta askotan norberak transkribatu behar ditu irakurri eta ulertu ahal izateko. Pertsona batzuk hori egiteko zailtasunak izan ditzakete, eta orain eskura dagoen iturriak.eus tresnaren bitartez, aukera dago transkripzioak elkarlanean egiteko eta besteen eskura uzteko.

Material didaktikoa ere osatzen ari da, eta une honetan dauden gaiei gehiago gehituko zaizkie. Hauek, gainera, beste eragile batzuekin elkarlanean lantzen dira, Laboratorio Museoarekin, adibidez.

D2030



Debagoieneko Trantsizio Energetikoa sustatzeko estrategia aurkeztu du D2030 ekimenak Bergaran

Eraginez Piztu deritzon esku-hartze proposamena aurkeztu du Debagoiena 2030 sareak Bergaran. Eremu hiritarreko –etxebizitzak eta eraikinak– energia eredua eraldatzeko helburua duten zortzi proiektuk osatzen dute proposamena.

Energiaren erronkak gure lerroburuak betetzen dituen sasoian, gure eskualdeak datu kezagarriak ditu: esaterako, Debagoieneko herritarrei dagokien CO2 isurketa maila Europako lurraldeetan gehien isurtzen dutenen artean hirugarren herrialdearen parekoa da. Gainera, Debagoieneren ekoizten den energia portzentajea, eta beraz, burujabetza maila, %5,2koa zen 2019an.

Testuinguru horretan, 2020an Debagoiena 2030en Gobernu Batzordeak erabaki zuen Debagoieneren iraunkorra eta berriztagarria izango den eredu energetikoa sustatzea: nagusiki sorkuntza berriztagarria, autokontsumoa, efizientzia eta sentsibilizazioa bezalako esparruak landuz.

Helburuaren konplexutasuna eta hedadura kontuan hartuz, lehen fase baten eremu hiritarreko energia eredua eraldatzea lehenetsi da, esku-hartze proposamena horren isla delarik.

Zortzi proiektuk osatzen dute esku-hartze proposamena eta 50 dira guztira modu batera edo bestera proiektu sistema honen parte diren eragileak. Hau guztia aurrera eramateko 350.000 euro inbertituko dira.

Martxan jarriko diren proiektu horien baitan badira Bergararekin lotutakoak:

BIRGAITZEN

Etxebizitzaren konfort baldintzak hobetu eta CO2 emisioak murriztu daitezkeela frogatu gura da proiektu honekin. Dagoeneko bi pilotu daude martxan, Bergarako Bolun eta Antzuolan.

DEBAGOIENA ERABERRITZEN GOGOETA GUNEA

Eremu urbanoko eraikinen eraberritze energetikoa sustatzea da helburua, energia kontsumoaren murrizketa lortzeko. Estrategia bateratu bat definitu gura da herritarren, eragile ekonomikoen eta instituzioen arteko prozesu baten bitartez. Hiru esparru aukeratu dira prozesua garatzen hasteko. Baserriak, alde zaharrak eta auzo degradatuak.

ENERGIA DENONTZAT

Bergarako, Antzuolako eta Oñatiko udalek bultzatuta, Debagoieneren energiaren eremuan inklusio soziala eman dadin diagnosa egingo da eta pobrezia energetikoari aurre egiteko dauden mekanismoak ikertu.

TOKIKO ENERGIA BERRIZTAGARRIEN LABORATEGIA

Energia berriztagarrien arloan eskualdean dagoen ezagutza, esperientziak eta ikasketak partekatzeko esparru bat eratuko da. Tartean dago Bergarako Udalak eta Ehunduk bultzatuta, eta Emunen eta Goienerren laguntzarekin, Bergaran sortu gura den Energia Berriztagarrien Komunitatea. Izan ere, menpekotasun energetikotik ihesi eta burujabeak izateko helburuarekin, tokiko energia berriztagarriak sortzeko ekimenak jartzea gako izango da. Horretan ekarpena egitera dator laborategia.

IKASTETXE-KLIK

Proiektuaren helburua hezkuntza-komunitate osoaren lankidetzat eta parte-hartze aktiboa sustatzea da, ikastetxeetan energia-aurrezpena eta eraginkortasuna sustatzeko, trantsizio energetikoaren gaia gizarteratuz.

ehbildu

BADAKIGU NORA GOAZEN

Urte zailen ostean bergararrok bizipoza berreskuratzen dihardugula ematen du. Behar genuen elkarrekin egotea, auzolanean aritzea, eta noski, baita parranda on bat egitea ere. Ez da harritzekoa, beraz, azken urteetako onenak izatea aurtengo jaia.

Bizipoza berreskuratzen ari garen honetan etorri da espero ez genuen moduko bizitzaren garestitzea. Herritarrok pobretu gaitu energiaren eta erregaiei prezioaren gorakadak, eta horrekin batera, baita bestelako produktuenak ere. Ez dirudi, gainera, egoera aldatuko denik epe motzera behintzat.

Pandemia sasoian ikusi genuen zeinen garrantzitsua den zerbitzu publiko indartsuak izatea, osasungintza, esaterako (nahiz eta Osakidetzako itxaron zerrendak ikusita, badirudien agintzen dutenek ez dutela ezer ikasi; edo osasungintza publikoa desmantelatu nahi al dute?). Orain, berriz geratu da agerian zeinen menpekoak garen urrutiko lehengaiekiko eta herritarren interesak defendatzeko zelako mugak ezartzen dituzten zenbait botere ekonomikorik eta instituziorik.

Erronka handiak ditugu aurrean hainbat arlotan: energian, klima larrialdian, elikaduran, mugikortasunean... Eta horiei aurre egin nahi badiegu, EHBilduk argi dauka burujabetza dela gakoa. Burujabetza arlo nazionalen, baina baita egunerokoan eragiten diguten bestelako arloetan ere, energian eta elikaduran, esaterako. Burujabetzak emango digulako erabakitzeak askatasuna, erabakiak guk geuk hartzekoa, alegia, baliabideak modu egokian banatzeko. Enpresa edo aberastasunik sortzen ez duten finantza erakunde handien aurrean, herritarren interesak defendatzeko.

Hori da EHBilduren eredua, eta horretan dihardugu Bergaran ere. Udal gobernua burujabetza lantzen ari da energia berriztagarrien komunitatea bultzatzen ari denean, landa lurra erosteko politika abian jartzen duenean, edo nekazari berriak lanean hasteko lanketan ari denean. Etorkizuneko gizartearen beharrak asetuko dituen ereduaren oinarriak ari gara ezartzen, egungoa baino justuagoa izango dena eta ahulenak edo zaurgarrienak ez dituen bazterrean lagako.

Eta gure egiteko modua denez, hori guztia herritarrekin eta eragileekin batera egiten ari gara eta egingo dugu, bai herrigintzatik eta baita instituzioetatik ere. Gure DNA txertatuta dagoelako elkarlana, batzuek kontrakoa dioten arren (ai, Bergarako EAJ, negar egiteari utzi eta hasi zaitez lanean...). Goazen, bada, politika egitera eta ez alderdikieriaz jokatzera. Izan gaitezen ausartak eta eraiki dezagun etorkizuneko eredua.



Gure herriak 754 urte bete ditu herri-gutuna jaso zuenetik. Urte hauetan guztietan, Bergara eraldatuz joan da, baina zalantzarik gabe, bere nortasuna mantentzen jakin du eta horren adibideak ugariak dira. Batetik, Bergara Berdea - lorategi eta parkeak, mendi ibilbideak, Dolmenen ibilbidea... Bestetik, Bergara Monumentala - Euskal Gotiko Berantiarreko, Italiar zein Europa erdialdeko Errenazimentukoak, Hilzoriko kristoa... Seminarixo aretoa, 2017an inauguratua - XVIII. mendeko eraikin historikoa, XXI. mendeko azpiegituraz atondua. Eta, nola ez, herriko altxorra Laboratorio Museoa, urteetako lanaren ondoren 2015ean irekia - gizarte museoa, ondarea bildu, zaindu, ikertu eta ezagutzera ematea du helburu, beti ere jasangarritasunean eta berrikuntzan oinarrituz.

Jasangarritasuna oinarri, horixe da gure herriaren ikurra, besteak beste. Eta nola egin herri jasangarria? Alor horretan hainbat lanketa egiteko ditugu. Horretarako, ezinbestekoa da espazio publiko zein pribatuak errespetatzea; alegia, gure herria, zaintzen hastea, besteak beste. Izan ere, kartelak edozein bazterretan aurki genitzake, asko adierazpen askatasunaren izenean, baina zergatik ez dira adierazpen guztiak erabiltzen? Edota ezin ahaztu baimenik gabe okupatutako eraikina - herriari eta herritarrei kendu zaion eraikina, gobernuaren "oniritziarekin" - edota pintadak eremu pribatuetan eta kasu kasu, iraingarriak eta bizikidetzazko oztokatzen dituztenak. Hauek ere gobernuaren "oniritziarekin". Hori al da jasangarritasunean oinarritutako herria?

Gure herriak aro berrietara egokitzen jakin du, bere nortasunari eutsiz; errespetua oinarri izanda. Eta guri dagokigu jarraipena ematea, gu baikara gure herriaren oinarrikoak. Gure herriak xarma berezia du, identitate propioa, ezaugarri bereziak eta horiek indartu eta balioan jarri behar ditugu, gure ondarea, historia, kirola, kultura eta euskara indartuz, baina beti errespetuan oinarrituta, herriaren jasangarritasuna bermatuz.

Inguruan dugun hori errespetatzen eta maitatzen ikasi beharra dugu, gure herriaren nortasuna balioan ipini eta harro egon; daukagunaz gozatuz, baina beti ere errespetuz. Orduan bakarrik, jakingo dugu gure herria mundura zabaltzen, garai batean gure aitzindariak egin zuten moduan.

Tenemos la suerte de vivir en un pueblo que ha sabido adaptarse a los nuevos tiempos, manteniendo su identidad; desde el respeto. Y nos toca dar continuidad. Nuestro pueblo tiene un encanto especial, una identidad propia, unas características especiales que debemos reforzar y poner en valor; nuestro patrimonio, historia, deporte, cultura y euskera, pero siempre desde el respeto, garantizando la sostenibilidad del pueblo. Y, últimamente, la falta de respeto a nuestro patrimonio es evidente: papeles, pancartas y pintadas, con el beneplácito del gobierno municipal, dejando oculto nuestro patrimonio.



GORKA ARTOLA ALBERDI

ALKATEA

Antolakuntza arloko
batzordekidea • Lurralde
arloko batzordekidea

alkatea@bergara.eus

AINHOA LETE ZABALETA

ALKATEORDEA

Antolakuntza arloko
lehendakaria • Berdintasuna •
Sustapen Ekonomikoa,
Berrikuntza, Ekintzailetasuna
eta Turismoa • Udal
Kudeaketa

alete@bergara.eus

**AITOR ARANZABAL
GALLASTEGI**

ALKATEORDEA

Antolakuntza arloko
batzordekidea • Ogasuna •
Herritarrak arloko
batzordekidea • Kirola

aaanzabal@bergara.eus

**KRISTINA MARKINA
IGARZA**

ALKATEORDEA

Herritarrak arloko
batzordekidea • Kultura

kmarkina@bergara.eus

**JUAN LUIS GONZALEZ
LOPEZ**

ALKATEORDEA

Lurraldea arloko lehendakaria
• Hirigintza

jlgonzalez@bergara.eus

**NAGORE INURRATEGI
IRIZAR**

BOZERAMAILEA

Lurraldea arloko
batzordekidea • Auzoak •
Ingurumena

ninurrategi@bergara.eus

**EKAITZ ARANBERRI
ZEZEAGA**

ALKATEORDEA

Herritarrak arloko
lehendakaria • Euskara •
Gazteria • Komunikazioa •
Partaidetza • Hezkuntza

earanberri@bergara.eus

**JUANJO ASULA
TXURRUKA**

ZINEGOTZIA

Lurraldea arloko
batzordekidea • Obra eta
Zerbitzuak

jasula@bergara.eus

**ZIHORTZA MARZAN
USANDIZAGA**

ZINEGOTZIA

Gizarte Zerbitzuak

zmarzan@bergara.eus

**EAJ-PNV-KO UDAL
ORDEZKARIAK**

MAITE AGIRRE IRIBAR

Herritarrak arloko
batzordekidea
Antolakuntza arloko
batzordekidea
Lurralde arloko batzordekidea

magirre@bergara.eus

**LANDER ARREGI
INTXAUSTI**

Lurraldea arloko batzordekide

larregi@bergara.eus

**IRUNE GALARRAGA
EZENARRO**

Antolakuntza arloko
batzordekidea
Herritarrak arloko
batzordekidea
Lurralde arloko batzordekidea

ej-pnv@bergara.eus

**ANGEL MURGIENDO
MUGIKA**

Antolakuntza arloko
batzordekidea

ej-pnv@bergara.eus

**ESTHER ORTIZ DE ZARATE
CARRILLO**

Herritarrak arloko
batzordekidea

ej-pnv@bergara.eus

JOSEBA ELOSUA URKIRI

Lurraldea arloko
batzordekidea

ej-pnv@bergara.eus

MARTIN ETXANIZ

Antolakuntza arloko
batzordekidea

ej-pnv@bergara.eus

**PSE-EE-KO UDAL
ORDEZKARIA**

**ALBERTO ALONSO
MARTIN**

Antolakuntza arloko
batzordekidea
Lurraldea arloko
batzordekidea
Herritarrak arloko
batzordekidea

psoe-ee@bergara.eus **23**



Ainhoa Narbaiza Irizar

BERGARAKO EREINDAJANEKO KIDEA

**“Lehen sektorean
bide berriak
aktibatzen ez badira
hamar urtean ia
ekoizle gabe
geratuko gara”**

**Ereindajan kooperatiba
hurbilekoak eta sozialki justuak
diren kontsumo-ereduak
garatzeko eta indartzeko
proiektua da. Bergaran denda-
topagunea dute, eta bertako kide
da Ainhoa Narbaiza Irizar.
Dendako jardunean bakarrik ez
dira aritzen, eta agroekologia
oinarri hainbat proiektutan parte
hartzen ari dira.**

**Orain dela gutxi Italian egon zarete, eskola-jantokiak
esperientzia batzuk ezagutzen. Zer dela eta?**

Gure Platera Gure Aukera ekimenetik joan ginen herriko bi kide. Bertan, era deszentralizatuagoan lan egiten duten esperientziak ezagutu ditugu: eskola, herriarrak, ekoizleak eta udal-erakundeak eskutik eskura eta elkarlanean. Tokiko eta sasoiko menuen antolaketa eredu hori hemen hedatzeko, korapilo handi bat daukagu Eusko Jaurlaritzan.

**Hori da esku artean duzuen proiektuetako bat, baina
beste hainbatetan ere bazabiltzate, esaterako, Udalak
koordinatzen duen elikadura mahaian.**

Elikadura burujabetza helburu, indarrak batu eta apustu iraunkor eta zabalago bat egin nahian elikadura mahaia sortu genuen, elkarreentako eta udaleko ordezkariak osatzen dugu egun. Sentsibilizazioa, jangelak, nekazal erreleboa eta azokaren bueltan ari gara. Kontsumo mailan bide berriak abiatzeko, ezinbestean ekoizpena duindu eta ekoizle berriak inkorporatzeko lan egin behar da.

**Herriko dinamikan inplikaturik zaudete, zuen ustez
zertan egiten duzue ekarpena?**

Herriarregandik, lurretik eta herriatik hurbil egon nahi dugu. Elikadura eredu agroekologikoa bultzatuz, dendako jardunetik batez ere. Indargune nagusia, eskualdeko eta herriko ekoizleekin ditugun harremanak eta baldintzak.

Azkenaldian, beste eremu batzuetan ere ari gara : Gure Platera Gure Aukeran, Biolur elkartean, Errigoran.... Lan hori, herrian proiektu berriak martxan jartzeko oso aberasgarria izaten ari da. Adibidez, eskolekin bultzatzen ari garen proiektuak (jantokiak, hamaiketako osasungarria, ikas bidaia otarrak, sentsibilizazio ekintzak...).

**Atzera begira, bide zati bat egin duzue dagoeneko
elikadura burujabetzan, zein balorazio egiten duzue?**

Arrasaten EDJ martxan jarri zutenek lan handia egin zuten, ekoizleen saretzean zein dendako erosketa-eredua lantzen. Gerora eguneroko lanarekin errota dira bi denda-topaguneak. Aipatzekoa da, ekoizle-bazkideek euren auto-antolaketa mailan egindako lanak bere fruituak eman dituela.

Aurrera begira non dituzue erronkak?

Agroekologiaruntz urrats gehiago ematea, erosten dugunaren atzean dagoena kontsumitzaileei transmititzea.

Bestetik, norbere erosketa saskitik harago, denontzat elikagai freskoak eta kalitatezkoak bermatzeko aukera gehiago sortzea: jantoki ezberdinetan adibidez. Elikagai erosketa publikoa tokiko komertzio eta ekoizpena lotu beharko litzateke, enpresa handien erabakietan gelditu beharrean.

Azkenik, lehen sektorearen biziberritzearekin ardura eta kezka daukagu. Bide berriak aktibatzen ez badira, hamar urtean Debagoienan ia ekoizle gabe geldituko gara eta.